

# LEZON

04'

ABENDUA 2017 DICIEMBRE



Herriko irisgarritasuna  
hobetzea, datorren urteko  
helbururik nagusiarena

*Mejorar la accesibilidad, principal  
objetivo de cara al próximo año*



## Proiektu garrantzitsuak datorren urteari begira

Beste urte bat atzean utzi eta herritarrengan pentsatuz landutako proiektu berriz jositako datorkigun urteari hasiera emango diogu laster.

Aurten Lezo eta Donibane arteko bidegorriaren eraikuntza lanei hasiera eman diegu gure herritik gertuen dagoen zatian, Lezoko zein Oarsoaldeako herritar askoren eskariari erantzunez. Eta ziurrenik datorren urtean amaitua izango dugu bidegorria; azken bi faseak 2018. urtean hasteko eta ahal bada bukatzeko konpromisoa hartu baitugu Foru Aldundiak eta baita guk ere.

Baina ez da datorren urteko proiektu esanguratsu bakarra izango, izan ere, datorren urtean, herriko lehen igogailua eraikiko dugu eta proiektu horri lotuta, kiroldegia, Altzateko igerilekuarekin eta Altamira auzoarekin lotuko dituen pasabidea ere eraikiko dugu.

Hori guztia herritarrentzat, bereziki behar bereziak dituztenentzat, hain garrantzitsuak diren gizarte zerbitzuak eta enplegu sustapena ahaztu gabe. Eta datorren urtean ere kulturaren, kirolaren eta zahartzate aktiboaren alde lanean jarraituko dugu aipatu guztiak eragin zuzena duelako herritarren ongizatearengan eta lezoko bizilagunen bizi kalitatearengan.

Gabon zoriontsuak eta urte berri on guztioi!

## Proyectos importantes de cara al próximo año

Nos toca despedir otro año más para dar comienzo a un nuevo y prospero año 2018 que viene cargado de nuevos e importantes proyectos para la ciudadanía.

Este 2017 hemos visto cómo daban comienzo las obras del Bidegorri entre Lezo y Donibane en la parte más cercana al centro del pueblo. Un bidegorri que las y los vecinos de Lezo, como del resto de Oarsoaldea, llevaban años aclamando y que casi seguro veremos finalizado el próximo año, porque tanto la Diputación como nosotros nos hemos comprometido a poner en marcha las dos fases restantes el año que viene.



Pero no será el único proyecto estrella del próximo año, ya que el año que viene construiremos el primero de los ascensores del municipio y también el nuevo paso peatonal que unirá el polideportivo con las piscinas de Altzate y el barrio de Altamira.

Todo ello, sin olvidarnos del fomento del empleo y de las prestaciones sociales que son verdaderamente importantes para la población que más lo necesita. Y sin lugar a dudas seguiremos apostando a favor de la cultura, el deporte y el envejecimiento activo entendiendo que todo lo citado es sinónimo de bienestar y calidad de vida para todas y todos los que vivimos en Lezo.

Os deseo felices fiestas a todas y todos. Urte berri on!

## Udalak Gezalako aldagela berriak atondu ditu

El Ayuntamiento acondiciona los nuevos vestuarios de Gezala con mobiliario



## HERRIRA ZABALIK JOLASTOKI ESTALI BERRIA



Urri amaieran inauguratu zuten udal ordezkariak, eskolako zuzendaritzak eta bertako ikasle zein irakasleek estalki berria.

Geroztik, haurrek patio garaian eremu berriaz gozatzeko aukera izan dute eta jolastoki estalia zabalik dago herritar guztientzat eskola orduetatik kanpo 21:00 arte, baita jai egunetan ere.

Hori horrela izan dadin, aipatu eremua eskolako gainerako azpiegituretatik isolatu da eta bertan egin diren lanak aprobetxatuz Herri Eskolako fatxada ere pintatu da.

Beraz, orain, eguraldi txarra egiten duenean, Saldise Plazaz gain, Herri Eskolako jolastokia ere dute herritarrek aisialdirako eta kirolerako.



### *La ciudadanía ya disfruta del nuevo patio cubierto de la Herri Eskola*

*Desde que fuera inaugurada la nueva cubierta del patio, este espacio ha quedado abierto a toda la ciudadanía fuera del horario escolar hasta las 21:00h. Por tanto, las y los lezoarras disfrutan ya de un nuevo espacio en el que poder jugar los días de lluvia.*

## LAS PRINCIPALES TASAS E IMPUESTOS SE CONGELAN EN 2018

En octubre quedaron aprobadas por unanimidad las ordenanzas fiscales que entrarán en vigor el próximo año. Tal y como propuso el gobierno, se mantienen las principales tasas e impuestos en 2018: IBI, ICIO, IAE o la tasa de basura o la tasa del agua. Por el contrario, algunas tasas sufrirán variaciones debido a la actualización de las tarifas.

## BIDEZ-BIDE ZERBITZUA ADINEKOEN ETA EZINDUEN BIZI KALITATEA HOBETZEKO



Nekazal auzoetan dagoen sakabanaketak sortzen dituen arazoez jabetuta, Lezoko Udalak maiatzean Bidez-bide

garraio zerbitzua jarri zuen martxan Altamiran eta landa eremuan.

Abiarazitako esperientzia berriarekin Altamira auzoko eta landa eremuko adineko pertsonen eta ezinduen beharrei erantzuna eman nahi izan zaie, beren autonomia areagotzeko eta isolamendu edota gizarte bazterketa saihesteko. Beraz, oinarrizko zerbitzuak gerturatu izan zaizkie landa eremuko eta Altamirako bizilagunei errazagoa izan dezaten erosketak egitea, medikuarengana joatea etab.


Eskaripeko furgoneta zerbitzu hau astelehenetik ostiralera eskaintzen da 8:00-13:00 bitartean eta alde zuzenetik deitu behar da 690 76 94 66 telefono zenbakira.

## REUNIÓN PARA TRATAR EL PROBLEMA DE RUIDO

El Ayuntamiento convocó una reunión para compartir con la ciudadanía las líneas de trabajo definidas y las soluciones planteadas en el Plan de Acción elaborado sobre el Mapa de Ruidos de Lezo y sobre todo para recoger las opiniones y aportaciones de las y los vecinos del municipio a ese respecto.

El Ayuntamiento hará público en Plan de Acción

tras las modificaciones y los cambios realizados al documento en base a la reunión llevada a cabo. Posteriormente, las y los lezoarras tendrán un periodo para poder hacer sugerencias.



## LEZOARREK JAI PAREKIDEEN INGURUAN HAUSNARTU DUTE

Oarsoaldean jai parekide eta barneratzaileagoak lortzeko ekimen ezberdinak gauzatu dira. Bestek beste, aurre diagnosi bat egin da eta Lezoko herrian antolatzen diren jaiak berdintasunaren ikuspegitik nolakoak diren aztertzeko tailerra ere egin da, herritarren eta eragileen iritzia, ekarpenak eta iradokizunak jasoz.

## MEJORAS EN EL ALUMBRADO PÚBLICO DE IJURKO

El Ayuntamiento sigue renovando el alumbrado público del municipio remplazando las luminarias existentes por nuevas luces LED que permiten disminuir el consumo de energía.

## JAKOBA ERREKONDOK BERE LIBURU BERRIA AURKEZTU DU LEZON

Landareak zaintzeko garai bakoitzean zer lan egin behar den eta nola azaltzen duen Jakoba Errekondoren gida-liburu berria babestu du Udalak



hori dela eta, Errekondo Lezon izan zen agenda berria aurkeztu. Bertaratu zirenen artean ale batzuk banatu ziren eta beste batzuk baratzeko parkeko kideen artean banatu ditu Udalak.

## A PUNTO DE FINALIZAR EL TERCER TRAMO DEL BIDEGORRI LEZO - DONIBANE



Las obras correspondientes al tramo 3, que es el más próximo al núcleo urbano de Lezo, comenzarán en noviembre y están a punto de finalizar.

Este tramo es muy importante para Lezo, no sólo por ser el más próximo al municipio sino porque transcurren por él muchas personas a diario y las obras mejorarán sin lugar a dudas la seguridad, la movilidad, la accesibilidad y el bienestar de todas las personas que hacen uso de este tramo.

## IV. ORRIBAKAR LITERATUR LEHIAKETAK BADITU IRABAZLEAK

Beste urte batez Lezoko Udal liburutegiak 6-15 urte bitarteko haurrei zuzendutako literatur lehiaketa antolatu du. Abenduaren 15ean udal liburutegian ospatutako sari-banaketa ekitaldian ezagutzera eman ziren kategoría bakoitzeko irabazleak.

## LAS OBRAS DEL LOCAL CULTURAL COMENZARÁN, PREVISIBLEMENTE, EN ENERO


Ya está en marcha el proceso de licitación de las obras para acondicionar el local cultural situado en Kale Nagusia.

El Ayuntamiento adjudicará este mes las obras para que los trabajos den comienzo en enero. El proyecto de reforma ha sido elaborado junto a los grupos culturales en respuesta a sus necesidades y peticiones.

Este nuevo espacio será lugar de encuentro, ensayo y almacén para los grupos culturales del municipio que podrán disfrutar de un lugar mucho más idóneo para su actividad. Y todo ello dará vida a esta calle creando un nuevo núcleo cultural en Kale Nagusia.

## EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA ETA EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroko Osoko Bilkuran aho batez onartu ziren Nazioarteko bi egun horien gaineko adierazpen instituzionalak.



Horien bitartez, indarkeriarik gabeko gizarte berdinzaleago baten alde eta euskararen alde urteko

365 lan egiteko konpromisoa hartu zuten Lezoko Udaleko zinegotzi guztiek.

EMAKUMEENGANAKO  
INDARKERIARI EZ  
NO A LA VIOLENCIA  
CONTRA LAS MUJERES

## ANTIDESLIZANTE EN POLENTZARRENE PARA EVITAR CAÍDAS

Con el objeto de seguir haciendo las calles de Lezo más seguras para las personas, el Ayuntamiento ha recubierto la calle que está detrás de la plaza de Polentzarrene



con producto antideslizantes para evitar caídas y resbalones los días de lluvia. Y es que el Ayuntamiento recibió una petición a ese respecto y en respuesta se ha llevado a cabo la mencionada actuación.

## ESKURATU ZURE TRAPUJALE EGUTEGIA!



Trapujale taldearen laguntzarekin Udalak 2018ko egutegia kaleratu du Trapujale pertsonaia eta bere kontakizuna oinarri hartuta. Izan ere, 2017. urtea berezia izan da

Trapujalerentzat, 30. urteurrena ospatu duelako eta horren harira sortu du Udalak Trapujaleri buruzko 2018ko egutegia. Guztira 1000 ale argitaratu dira eta herritarrek Informazio Bulegoan edota Kultur bulegoan doan jaso dezakete datorren urteko egutegia.

## AURREKONTUAK 2018 PRESUPUESTOS

laz bezala, datorren urtean ere Lezok 8.400.000 euroko aurrekontua izango du.

Helburu nagusia herritarren beharrei eta eskariei erantzutea izango da udal baliabideak modu eraginkor eta jasangarrian kudeatuz.

### Finantzen egonkortasun eta iraunkortasuna:

Lezok aurrekontu orekatuak ditu diru sarrerei eta gastuei dagokienean eta iaz bezala, Udalaren zorrak behera egin du.

Hondakin bilketarako sistemaren aldaketari esker, Lezok, 200.000€ inguru aurreztuko ditu datorren urtean eta aurreztutako diru zati bat kale garbiketa zerbitzura bideratuko da zerbitzua hobetzeko helburuarekin. Gainerako aurrezkiak inbertsioetarako edota bete gastu batzuetarako erabiliko da.

Como el pasado año, Lezo contará con un presupuesto de 8.400.000 euros en 2018.

El principal objetivo es dar respuesta a las necesidades y peticiones de la ciudadanía gestionando los recursos municipales de manera eficiente y sostenible.

### Equilibrio y sostenibilidad financiera:

Lezo cuenta con unos presupuestos equilibrados y consolidados en lo que a ingresos y gastos se refiere. Además, la deuda municipal ha vuelto a descender.

Asimismo, gracias al cambio de sistema para la recogida selectiva de los residuos, Lezo ahorrará 200.000 euros el próximo año. Parte del dinero ahorrado se destinará a la limpieza viaria con el objeto de mejorar el servicio prestado a la ciudadanía. El resto del dinero se destinará a inversiones o a otros posibles gastos.

### Hondakin gastuetan aurrezkiak Ahorro en los gastos de residuos

GASTUA GASTO	2016	2017
HONDAKIN BILKETA RECOGIDA DE RESIDUOS	361.500	81.500
HONDAKINEN KUDEAKETA GESTIÓN DE RESIDUOS	76.400	71.900
HONDAKINEN TRATAMENDUA /RATAMIENTO DE RESIDUOS	80.000	156.000
GUZTIRA TOTAL	517.900	309.400
<b>DIFERENTZIA (aurrezkiak) DIFERENCIA (ahorro)</b>	<b>208.500</b>	

### Helburu nagusiak

Herritarren gizarte beharrei erantzutea eta ekonomia eta enplegua sustatzea lehentasunezko gaiak izaten jarraituko dute datorren urtean ere.

Pertsonen ongizateari lotuta jarraipena izango dute, baita ere, kulturarekin, kirolarekin eta zahartze aktiboarekin lotutako egitasmoek.

Inbertsioen atalak helburu du, nagusiki, pertsonengan pentsatutako Lezo eraikitzea, hau da, Lezo herri atseginagoa eta irisgarriagoa egitea.

### Objetivos principales

Responder a las necesidades sociales de la población y promover la economía y el empleo seguirán siendo prioritarios el próximo año.

Unido al bienestar de las personas tendrán continuidad también todas aquellas actividades relacionadas con el envejecimiento activo, el deporte y cultura.

El apartado de inversiones irá dirigido principalmente a hacer de Lezo un municipio más amable y accesible, pensado para las personas.

## DATORREN URTEAN GAUZATUKO DIREN PROIEKTU NAGUSIAK PROYECTOS QUE SE LLEVARÁN A CABO EN 2018



**KULTUR LOKALAREN EGOKITZAPENA**  
ACONDICIONAMIENTO DEL LOCAL CULTURAL




**LEZO-DONIBANE ARTEKO BIDEGORRIA AMAITZEKO LANAK**  
FINALIZACIÓN DE LAS OBRAS DEL BIDEGORRI LEZO-DONIBANE



**LEHEN IGOGAILUAREN ERAIKUNTZA KIROLDEGI ALBOAN**  
CONSTRUCCIÓN DEL PRIMER ASCENSOR JUNTO AL POLIDEPORTIVO

**OINEZKO BIDEA IGOGAILUA IGERILEKUAREKIN ETA ALTAMIRA AUZOAREKIN LOTZEKO**

CONSTRUCCIÓN DEL PASO PEATONAL PARA UNIR EL ASCENSOR A LAS PISCINAS Y A ALTAMIRA



### ETA BAITA ERE... Y ADEMÁS...

<b>EKONOMIA ETA ENPLEGUA</b> <i>ECONOMÍA Y EMPLEO</i>	<b>GIZARTE ONGIZATEA</b> <i>BIENESTAR SOCIAL</i>	<b>INGURUMENA</b> <i>MEDIOAMBIENTE</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enplegu Plana <i>Plan de empleo</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte programak, laguntzak eta zerbitzuak <i>Programas sociales, ayudas y servicios</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Baratze parkea <i>Parque de huertas</i></li> <li>• Auzokonposta guneak <i>Áreas de compostaje comunitario</i></li> <li>• Agenda 21</li> </ul>
<b>KULTURA eta EUSKARA</b> <i>EUSKERA Y CULTURA</i> (Diru partidak handitu dira) <i>(Incremento de las partidas)</i>	<b>KIROLA ETA ZAHARTZE AKTIBOA</b> <i>DEPORTE Y ENVEJECIMIENTO ACTIVO</i>	<b>HIRIGINTZA ETA MANTENUA</b> <i>URBANISMO Y MANTENIMIENTO</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kultur programazio zabala <i>Amplia programación cultural</i></li> <li>• Hitzarmenak eta diru laguntzak herriko elkarteei <i>Convenios y subvenciones para asociaciones del pueblo</i></li> <li>• Ludoteka eta Udalekuak <i>Ludotecas y colonias</i></li> <li>• Euskararen erabilera sustatzeko ekimenak Oarsoaldearekin <i>Acciones para el fomento del euskera junto a Oarsoaldea</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tipi Topa</li> <li>• Kirol Orientazio Zerbitzua <i>Servicio de orientación deportiva</i></li> <li>• Adineko pertsonen kirola praktika dezaten makinak <i>Máquinas para la práctica del deporte para personas mayores</i></li> <li>• Eskola Kirola <i>Deporte Escolar</i></li> <li>• Kirol instalazioen hobekuntza <i>Mejoras en las instalaciones deportivas</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kaleen hobekuntza <i>Mejora de calles</i></li> <li>• Zebrabideak altueran <i>Pasos de cebra en relieve</i></li> <li>• Radarra Jaizkibel hiribidean <i>Rádar en la avenida Jaizkibel</i></li> <li>• Musika Eskolako fatxadaren hobekuntza <i>Mejora de la fachada de la Musika Eskola</i></li> <li>• Lorezaintza Jardinería</li> <li>• Kale argiztapena <i>Iluminación (LED)</i></li> <li>• Mantenu lanak: erreka, saneamendu sarea... <i>Trabajos de mantenimiento: río, red de saneamiento...</i></li> </ul>



EAJ-PNVk herritarren interesen defentsan egiten du lan instituzio guztietan. Lan horren haritik, berriki, Euskal herritarrentzat eta Euskadirentzat hain garrantzitsuak diren Kontzertu Ekonomikoa eta Kupoa adostu dira. Kontzertu Ekonomikoari esker Euskadik autonomia osoa du, beste lekuetan ez bezala, bertako zergak erabakitzeko, kudeatzeko eta biltzeko. Zergen bidez bildutakoa da Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek eta Udalek herritarrei zerbitzu publikoak eskaintzeko erabiltzen dutena, horregatik da hain garrantzitsua.

*EAJ-PNV trabaja en defensa de los intereses de la ciudadanía vasca en todas las instituciones. Muestra de ello, el acuerdo parlamentario alcanzado sobre el Concierto Económico y el Cupo que son sumamente valiosos porque nos permiten gestionar nuestros propios recursos. Gracias al Concierto la CAV recauda la totalidad de los impuestos y éstos se traducen en servicios públicos: sanidad, educación... Por tanto, el acuerdo dignifica el autogobierno y nos otorga estabilidad financiera y seguridad jurídica a favor de los servicios públicos prestados y el crecimiento económico de nuestro país.*



EAJ-PSEren Udal Gobernuak onartu berri dituen 2018ko Udal aurrekontuei aurkako bozka eman diegu. Aurrekontuak tresna dira; ezarritako helburuak lortzeko tresna. Funtzio hori izan beharko lukete aurrekontuek. Legegintzaldi honetako orain arteko aurrekontu guztietan aurkeztu ditugu emendakinak, baita adostasunak lortu ere aurrekontu hobeak izateko. Baina zer egin du EAJ-PSEren gobernuak, nola gauzatu ditu 2016an eta 2017an onartutako emendakinak? 35 urtetik azpikoek alokairua ordaintzeko diru laguntza adostu genuen; EAJ-PSEren gobernuak ez du gauzatu. 100.000€-ko partida herritarrek zertan inbertitu erabakitzeko; ez dute gauzatu. Herriko merkataritza indartzeko diru partida; ez dute gauzatu. Enplegu duina sustatzeko partida; zerbitzuak pribatizatu dituzte. Hauek adibide batzuk baino ez dira. Honegatik guztiagatik bozkatu dugu ezetz 2018ko aurrekontuei. Aurrekontu kosmetikoak ez ditugulako nahi. Marketin kanpainazko aurrekontuen orde, helburuak lortzeko bideratzen diren aurrekontuak behar ditugulako.



*El año 2018 se presenta para el pueblo de Lezo como clave en el que se materializaran algunos de los proyectos que el PSE-EE tenía como prioritarios en su programa electoral: Ascensor al barrio de Altamira y mejoras en su entorno y el bidegorri que comunicara nuestro pueblo con Donibane. Aún más importantes será la entrada del nuevo y mejorado contrato de limpieza, las ayudas al alquiler a jóvenes, los nuevos planes de empleo – ejemplar a nivel provincial- o la rehabilitación de varias de nuestras calles. Es la política de las pequeñas cosas pero la más próxima al vecino/a. Superada, a pesar de los palos en las ruedas, ha quedado la cuestión de la recogida de basura. En la nueva organización municipal el PSE-EE además del área de Hacienda y Desarrollo Económico, asumirá el Departamento de Medioambiente, al que se le dotará de mayor presupuesto y con el compromiso del actual equipo de gobierno de darle una mayor relevancia, porque no tendremos Sociedad si destruimos nuestro medioambiente. Zorionak eta Urte Berri On!*



## LEZOKO AHOTSAK: ahozko ondare aberatsa

Lezoko Udalak urteak daramatza Badihardugu Euskara Elkartearekin Ahotsak proiektua lantzen Lezoko ahozko ondarea eta herri hizkerak jasotzeko eta hedatzeko helburuarekin. Proiektu honek adineko pertsonen hitzak biltzen ditu Lezoko herriaren memoria kolektiboa jasotzeko. Euren euskara, bizimodua eta testigantzak grabazioen bitartez jasotzen dira, lehengo belaunaldiek bizi izandako historia eta gure herriko ondarea ezagutzeko aukera izan dezagun.

*El Ayuntamiento de Lezo y la Asociación Badihardugu llevan años trabajando en el proyecto Ahotsak con el objeto de recopilar y preservar el patrimonio oral de Lezo y recoger también las particularidades del euskera que se hablaba y se habla en el municipio. Este objetivo se complementa con un recorrido por la historia de Lezo, tradiciones propias y distintos hechos de su historia relatados por los propios protagonistas. El resultado: una enriquecedora y entrañable recopilación de recuerdos, experiencias y vivencias. ¿Quiéres conocer algunas de ellas?*



## LEZOKO AHOTSAK

Ezagutu lezoarren eskutik herriko ahozko ondarea, bertako historia eta herritarren bizipen eta kontakizunak:

### **XEBASTIANA AGIRRE TELLETXEA (1927) "Kale nagusiko giro alai"**



Neska ta mutillak denak batea ibiltzen giñen jolasten. Neskak, gehienian neskakin ibiltzen ginen, biño baita mutillak´e. Eta zen kali hau, alaya! Soka saltuan ibiltzen giñen Gurutze Santuko aurrian. Bazen Gure Bordako semia, Joxe Juan izena zuna eta harrek lokarriya haundi bat jartzen zuen, soka, eta han denak. "Haria, loria" ta "salto ta salto ta salto"...abesten genun. Denak jarriko giñen illaran, denak, eta txandan-txandan, ta salto. Ta itten bagenun galdu, hala! Sokai ematea.

Jolastu asko eta geo itsasua jeisten zenian, hemen bihian e, marea jeisten zenian, hartu harriyak eta itxiak iten aitzen giñen. Itxia balitzake bezela. Harriyak, jarri harriyak eta hau sukaldia, hau gela eta hola aitzen giñen.

Gero hartzen genittun belarrak eta belarrak zien saltzeko. Bat dendariya ta harrek saltzen zittun eta gu joaten giñen harrena erostea ta holako jostaketa politik genittun.

### **JOXE GARMENDIA GAZTELUMENDI (1933) "Irungo Euskal Jirara urtero idiekin"**



Iruna Euskal Jira joten gea, agustuan, idiyakin-ta! Euskal Jira-ta, badittut hogeita hamar urte joten nazela, hara. Iriyak prestatu iten dittut, ondo prepatu behar izateia. Ondo, bestela, kaka ta usaia ematen...jendiak parra itteu.

Han ordu pare batin eo...herrikuak beak bialtzen digu kamioya, eaman ta ekarri itten digu ta sos batzuk ematen dizkiogu, ta klaro, itten dugu toki batian karruak hartu, oin karruak, soziedadiak prepatzen ttuzte karruak, urtero diferentia jarriyez.

Ta hura hartu ta ordu pare batin birian jun, poliki-poliki itteia, jendiai eakutsiz. Iriyak bidian ondo joten dia guriak behintzat. Batzuk badia, hola zipoka pixkat tiraka iten dienak, baino ez ez...guriak ondo.

Idi paria berrittu ber detenian Lopenetik´eo... Sestaotik ekarri non bat orain, Donostiatik ekarri izandu dittut! Uain´e apostutako ta holako-ta iri asko do, e! Ask do. Uain baserriya gutxi, lana iteko.

### **MADDI GARMENDIA LOPETEGI (1924) "Lopene baserrira lapurretara"**



Lopene baserriyak zun harrobiya. Fruta zakaten inguru hortan. Lapurreta joaten giñan. Melokotoiak, sagarrak, sagar txuriyak eta oso onak zien, arana´re asko eta gereziryak´e bai bazien ta beti joan itten giñen.

Jende ona zen Lopenekoa, onak zien oso onak. Bazien beste batzuk txarrak. Ikusten zigutenian segika, gu korrika, baiño ez zian juten gurasoena ta.

ISTORIO GEHIAGO IKUSI EDO ENTZUN NAHI BADITUZU:

[www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus)

### **ERRAMUN SALABERRIA LOPETEGI (1927) “Herriko jaietako ohiturak”**

Herriko jaitan, hoi bai jaiak orduan...meza zeon, oan Santa Krutzetan izaten da baiño orduan meza izaten zen hamarretan. Ta ordun bakizu, gaur baiño txintoxio jon´e iten zien ta –gu behintzat gaztiak bai, biali iten ziguten- ta hamarretako mezara, ta geo handik atea, fiestara, ordu bat edo ordubata terdik arte edo. Gaur biño dotoriaguk.

Geo bazkaldu, bazkaia orduan banketia ibiltzen genun, oillaskua ta arroza ta hoik jan ezkeo orduan banketia zen! Gaur harekin ibiltzen gea, egunero jaten dittugu hoik iñon orduan ta ilusiyua hoixe zen.

Oan´e itten da ohitura hoi karga-jasotzaillia ta aixkolai ta...soiñua ez zan soñua izaten hola. Ikuskizuna behintzat. Goiko, beheko plazan´e hasi oiñ estankoko hortan ta bueltan han beheko kamiyuako kantoi hartaiño dena erremintaz ta baserriko erremintaz ta dena betia eoten zen hoi dena! Beste bista bat eoten zen ordun! Beste...bai, gaur ez da ezer izaten, gaur dantza ta besteik ez da. Baiña orduan ikuskizun ona izaten zen.



### **ARANTXA LARREA GARMENDIA (1937)“Mutilengana gerturatzeko moduak”**

Ibiltzen giñanian pasiatzen gora ta behera, eta gustatzen zitzaixkigun mutillen batzuek edo eta harekin nola geatu. Ta orduan igual egitten genun ba pakete bat gaztaiña edo txurruak edo erosi, ta guk nahi genittun haiei ba konbidatu beakin geatzeko.

Behin nire lagun batek nahi zuen Lezoko batekin, hura gustatzen zitzaion, biñon ez zion kasoik egitten! Eta bagenittun bi laun Antxokuak, erdaldunak zien baiñon oso majvak zien! Ta beti guekin eon nahi izaten zuten biñon guk beaiekin ez, biñon ba kasu hortan, ba bestiak ikusteko hoiekin geundela eaman genittun pixka bat hola, ta bestiak ikusi zigun ta ikusi zigunian aurreaxio ya despeditu genituen ta ya esta, ta mutil horrekin hasi zen, beak nahi zuenakin.



### **NIKOLAS LOPETEGI Aiestaran 1924 “Soldadutzako kapitainak euskaldunak zituen begiko”**

Soldadu giñela asko giñen euskaldunak ta euskaldunak aritzen giñan. Geo kapitaiña genun denbo askuan Burgosko bat, solterua zen, mutil balentia zen, Burguskua.

Harrek bazun kapritxua´re. Iñoa jun ber ez zun beti euskaldunakin! Beti euskaldunakin joten zan! Beti! Mendira, ta geo beste zea zun, igela bat. Halakuak gustatzen zitzaizkion... asko. Gabian linternak hartu ta beti euskaldunakin! Kastillano bat ez zuen eamaten, beiñere! Beti euskaldunakin! Ze kapritxosua e? Gu beti euskaldunak juntatze giñan.



# Gabonetako egitaraua

## ABENDUAK 22

16:00 "Itoitz, urpeko ipuinak" ipuin kontaketa, Gezalan.

17:00 Gabonetako audizioa, Musika Eskolan.

19:30 Gabonetako kontzertu korala, Gezalan.

## ABENDUAK 23

16:30 "Iparraldeko Norman" haur zinema, Gezalan.

## ABENDUAK 24

12:00 Hator Hator kantatzera Euskal Herria plazan.

16:30 Gabonetako Kalejira kaleetan zehar.

18:30 Olentzero.

## ABENDUAK 25

11:30 Badator Olentzero, Musika Eskolatik Gurutze Santuaren plazara.

12:00 Opari banaketa, Gurutze Santuaren plazan.

## ABENDUAK 31

10:30 San Silbestre haur krosa, Gurutze Santuaren plazan.

11:30 Muxikoen tailerra, Gurutze Santuaren plazan.

12:00 Muxikoak, Gurutze Santuaren plazan.

15:00 Kopla zaharrak, baserri baserri.

18:30 Urte Amaierako kopla zaharrak kaleetan zehar.

## URTARRILAK 5

12:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots: "Borobilean", kiroldegian.

19:00 Errege kabalgata, Lopenetik abiatuta.

Gabon zorionsuak eta Urte Berri On

*Felices fiestas y próspero* **2018**



Lezoko Unibertsitateko Udala

Abenduak 24 arte Kultura aretoan  
GABONETAKO LIBURU ETA DISKA AZOKA

## 2018KO EGUTEGI FISKALA CALENDARIO FISCAL 2018

ZERGA IMPUESTO		EPEA PERIODO
Trakzio Mekanikodun ibilgailuen zerga <i>Impuesto sobre vehículos Tracción Mecánica</i>		2018/02/19 - 2018/04/20
Ondasun higiezinaren zerga (OHZ) <i>Impuesto de Bienes Inmuebles (IBI)</i>		2018/05/14 - 2018/07/13
Zabor bilketa <i>Recogida de Basuras</i>		2018/06/04 - 2018/08/03
Ibilgailuen sarrera, ibiak <i>Entrada de vehículos, vado</i>		2018/07/02 - 2018/09/03
Ekonomi jardueren zerga (JEZ) <i>Impuesto de Actividades Económicas (IAE)</i>		2018/10/01 - 2018/11/23
Etkez etxeako asistentzia <i>Asistencia domiciliaria</i>		Hilero 1-24 Mensual 1-24
Baratzak <i>Huertas</i>		Urtarrilean <i>En enero</i>
Ura-Estolderia <i>Agua-Alcantarillado</i>	2017 4. HIRUILEKOA 4º TRIMESTRE	2018/01/15 - 2018/03/16
	2018 1. HIRUILEKOA 1º TRIMESTRE	2018/04/16 - 2018/06/15
	2018 2. HIRUILEKOA 2º TRIMESTRE	2018/07/16 - 2018/09/17
	2018 3. HIRUILEKOA 3º TRIMESTRE	2018/10/15 - 2018/12/14
<b>Domiziliatuta dauden erreziboak Udalak estimatzen duenen kobratuko ditu, betiere epe horien barruan</b> <i>El cargo bancario de los recibos domiciliados se efectuará cuando el Ayuntamiento lo considere oportuno, dentro de los mencionados periodos</i>		



@LezokoUdala



@LezoUdala

DESKARGATU LEZO ESKURA JARRIKO  
DIZUN APP-A

DESCARGA LA APP PARA CONOCER  
TODA LA PROGRAMACIÓN

